

Giza robota nortasun bila

Saibogujiman kwenchana, Hego Korea, 2006. Zuzendaria: Park Chan-wook. Aktoreak: Lim Soo-jung, Su-jeong Lim, Jung Ji-hoon, Rain. 105 m.

Fitxa teknikoak dio komedia erromantikoa dela, baina inork ez dezala *Pretty Woman* antzeko zerbait espero. Komedia? Bai, barre ugari egin dugu; erromantikoa? Agian, protagonistek laguntasun istorio polita bizi dutelako. Baina askoz harago garamatza errealismoa, fantasia eta haluzinazioak nahasten dituen pelikula surrealista honek. Adi bestela *Cyborg bat naiz* izenburuarekin itzuli duten filmaren argumentuari: Young-Goon neska gaztea eroetxean sartu dute, robota dela sinetsita. Objektu mekanikoekin hitz egiten du eta batera elektrikoak miazkatuz kargatzen du bere burua. Eroetxean Rain ezagutuko du, inguruan dituen pertsonen ezaugarriak lapurtu ditzakeen mutila. Berak lagunduko dio Young-Gooni robotak bizitza honetan duen helburu metafisikoa aurkitzen. Tartean, arbiak jateko hortz bereziak dituen amona, koloretako galtzerdiak igurtzita hegan egin dezakeen emakumea edota denagatik etengabe barkamena eskatzen duen gizona ere ezagutuko ditu, besteak beste.

Nahiko frikia dela? Behar-bada, baina kontakizun freskoa da, dibertigarria, atsegina eta oso landua. Hainbatetan *Amelie* eta *One flew over the cuckoo's nest* (Norbaitek kukuaren habia gainean hegan egin zuen) gogorarazten du, musika oso ondo aukeratua dago eta argazkia bikaina da —animearen estetikatik hurbil, irudi askotan—. Horrekin guztiarekin, egungo gizartearen mekanizazioa kritikatu du Koreako zinemaren erreferentzia den Park Chan-wookek.

Berlinalako Urrezko Hartzarako hautagai izan zen filma 2006an, baina Euskal Herriko zine aretoetara ez da pasa den uztailean arte iritsi, eta oihartzun gutxiarekin, egia esan. Gutxiegi, merezi duelako ohituta ez gauden orijinaltasuna darion bitxikeria eder hau ikustek.



MIKEL GARCIA

Jaso astero ARGIA etxean

Abantaila ugari izateaz gain, Harpidedunen Guneko kide ere izango zara



Izen deiturak:
 Helbidea: Posta kodea: Herria:
 Herraldea: Jaioteguna:
 N.A./I.F.K.: Tel./Faxa: e-posta:
 Ordainketa mota: Bankuz
 Taloiez
 Transferentziaz KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L.ren kontura (ARGIA): 3035 0036 14 0360048647
 Bankuz ordaintzekoek betetzeko soilik
 Banku edo aurrezki kutxa:
 Titularra: N.A./I.F.K.:
 Titularraren helbidea: Titularraren telefonoa:
 Entitatea: _____ Sukurtsala: _____ K.D.: _____ Kontu zenbakia: _____
 Data: Sinadura:

Harpidetza-orri hau zure datuekin bete eta helbide honetara bidali: **142 P.K. / 20160 Lasarte-Oria –Gipuzkoa–**

Aukeratu ongietorri oparia



“Kirolaz badakit”
mahai-jolasa



“888 txiste”
liburua



“Txoriak txori”
lamina



%25eko beherapena
ikasle bazara

Urtebeteko harpidetza:
2008ko prezioak

135 € Hego Euskal Herrian
165 € Ipar Euskal Herrian

